



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

TELEBISTAN EMATEKO ERREPORTAJE-PROGRAMA BATEN IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOA KONTRATATZEKO BALDINTZEN PLEGUA. ERREPORTAJEEN EDUKIA “FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOA”N INTEGRATUTA DAUDEN ETA 2016AN RION EGITEKOAK DIREN JOKO OLINPIKOETAN PARTE HARTUKO DUTEN KIROLARIEN JARDUERAK HEDATZEKO DA

(01/2015 ESPEDIENTEA)

1.- Aurrekariak

Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren xedea da Goi Mailako Euskal Kirola egoki garatzea bultzatzea eta bermatzea helburu bikoitzarekin: batetik, nazioarteko kirol lehiaketetan eta, batez ere, goi mailako kirol lehiaketetan euskal ordezkari ugaria aritzea sustatzea, eta, bestetik, delako goi mailako kirol lehiaketa horietan euskal kirolariek -emakumezkoek zein gizonezkoek- emaitza arrakastatsuak eta gogoangarriak lortzea. Zeregin hori garatzeko eta helburu horiek lortzeko, arlo estrategikoetako bat da gure Fundazio honen eta beraren parte diren kirolarien irudi korporatibo jakin eta zehatz bat komunikatzea eta gizarteratzea.

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak, bere zeregina behar bezala eta eraginkorrago gauzatzeko, BAT-BASQUE TEAM merkataritza-marka sortu zuen, eta azken hori da fundazioaren irudi publikoa eta hura zabaldu izan da euskal gizartean azken urteotan.

Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren asmoa da bere proiektua eta BAT-BASQUE TEAM marka iritzi publikoari ezagutzera ematen eta gizartean zabaltzen jarraitzea, eta asmo hori bermatzeko, erabakita du ikus-entzunezko programak batzuk sortzea sustatzea telebistaz zabaltzeko eta ezagutarazteko BAT-BASQUE TEAMeko kirolariek zer eratako jarduerak eta ekintzak egiten dituzten. Bereziki, plegu honetan aipatutako erreportaje sortak Rio de Janeiron 2016ko udan egingo diren Joko Olinpikoetan parte hartzeko aukera duten



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

kirolarien jardunari -emakumezkoenari zein gizonezkoenari-erreparatuko die eta haien jarraipena egingo du. Telebistarako programa sail hau sortzeko eta prestatzeko, Fundazioak ezinbestekoa du ikus-entzunezkoak ekoizten aditua, aritua eta trebatua den enpresa baten lankidetzatza.

Kontua da, azken finean, ikus-entzunezkoak ekoizteko kontratu pribatu bat eskaintzea, beraren helburua honako hau izanik: Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren, haren parte diren kirolarien eta Fundazioaren BAT-BASQUE TEAM markaren gaineko erreportaje programa edo telebistarako dokumental sail bat ekoiztea, honako plegu honetan xedatzen denaren arabera.

Fundación EUSKADI KIROLA Fundazioak, Euskadiko Sektore Publikoko erakunde den neurrian, kontratistak hautatzeko erabiltzen dituen prozedurak 3/2011 Legegintzako Errege dekretuak, azaroaren 14koak, publizitate, konkurrentzia aske eta berdintasun printzipioak aintzat hartu eta bermatzeaz aurreikusi eta xedatutakoaren menpekoak dira; izan ere, 3/2011 Legegintzako Errege dekretu azaroaren 14ko horretan onartzen da Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB). Eta hala izan dadin, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren Patronatuak Kontrataziorako Barne-lirizpideak onartu zituen 2012ko azaroaren 21eko bileran, eta Fundazioaren web-orrian, www.basqueteam.com, eman zituen argitara iritzi publikoa jakinaren gainean jartzeko.

Honako kontratu honi dagokionez, beraren zenbatekoa dela-eta, 2. mailakotzat jotakoa kontratuetakoa da aipatu berri diren Kontrataziorako Barne-lirizpide horietan, eta arrazoi horregatik, kontratua delako Klausula horietako 11. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki esleitu beharko da. Zehatzago esateko, kontratu hau prozedura negoziatuaren bidez esleituko da, aurretiaz gutxienez hiru enpresari eskaintzak egiteko berariazko gonbita eginda -hala egiterik balego, behintzat-. Gonbita hori, betiere, kontratuaren xede den sektorearen jardueretan gaituak diren enpresei egingo zaie.

Halaber, Kontrataziorako Barne-lirizpide horietan jasotzen denez, "ezinbestekoa da aldeztatik baldintzen plegu bat idaztea, eta bertan, gutxienez, honako hauek jasotzea: kontratuaren oinarritzko ezaugarriak eta, hala beharko balitz, aldaerak onartzeko erregimena, eskaintzak jasotzeko zer modalitate dauden, esleipenak egiteko irizpideak, bermeak, preskripzio teknikoak, gaitasun eta kaudimeneko baldintzak, epeak eta zigorrak". Eta hori guzti hori da honako dokumentu honen xedea.



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

2.- Eskaintzen den kontratuaren izaera juridikoa

Kontratista hautatzeko prozedurari kalterik egin gabe eta eskaintzen den kontratuaren oinarritzko baldintzak finkatzeko eta zehazteko jarraitu diren gainerako prozedura publikoei kalterik egin gabe, honako kontratu hau kontratu pribatu moduan prestatuko da, SPKLTBko 20.1^o artikulua xedatzen duenez.

Kontratu pribatua gidatuko da, batetik, baldintzen plegu honetan xedatutakoaren arabera, eta, bestetik, kontratuaren enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintzan zehaztutakoaren arabera, edo, bestela, obraren errentamendu-kontratuari eragiten dion eta indarrean dagoen legedian xedatutakoak.

3.- Kontratuaren xedea

Honako kontratu honen enpresa esleipenduna behartuta dago telebistaz emateko egoki diren erreportaje edo ikus-entzunezko programa kopuru jakin bat ekoiztera, beherago deskribatzen diren eduki eta ezaugarrien arabera, eta Fundación Euskadi Kirola Fundazioak konpromisoa hartzen du programa horien truke prezio jakin bat ordaintzeko, geroago zehaztuko den prezioa hain zuzen.

Kontratu honen xede diren ikus-entzunezko programen ezaugarri teknikoak honako hauek dira:

- Iraupena: 25 minutu programako
- Programa kopurua: 11 (HAMAİKA)
- Aldizkakotasuna: hilerokoa
- Osagarri modura, ekoiztako programa bakoitzarekin batera, enpresa esleipendunak mikroespazio bi editatu eta entregatu beharko ditu, bakoitza minutu biko iraupenekoa, programaren publizitatea egiteko erabiliko direnak, "highlights" modura edo ekoiztako programaren unerik gogoangarrienak erakusteko.



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

- Xedea: 2016ko Rio de Janeiroko Joko Olinpikoak direla eta, Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren parte diren kirolarien jarduerak eta ekintzak ezagutaraztea, eta haien bidez “Bat Basque Team” marka publizitatu eta ezagutaraztea.
- Atxikitako beste balio batzuk: Goi mailako euskal kirola. Konpromisoa, ahalegina, hobetzeko gogoia eta borondatea, lortutako emaitzekiko harrotasuna, eliteko kirol talde bateko izatea, Euskal Herriaren ordezkaritza nazioartera eramatea.
- Bertsio bi egingo dira: bata, euskaraz, eta, bestea, gaztelaniaz.
- Protagonistak: BAT- BASQUE TEAM-eko kirolariak, prestatzaileak, teknikoak, BAT- BASQUE TEAM-ek egindako jarduerak
- Kontratuaren prezioak barne hartzen dituen gastuak:
 - Taldea teknikoa: Zuzendaria, erredaktorea, ekoizpena, errealizazioa
 - Taldea artistikoa: Ahotsa off-en
 - Beharizan teknikoak: ekoizpen ostekoa, ENG grabaketa, Audio post ekoizpena, grafismoa
 - Dietak, bidaiak eta beste gastu batzuk (Nazioarteko lehiaketetan BATeko kirolariei jarraitzea eta grabatzea izan ezik)

4 – Egikaritze-epea

Enpresa esleipendunak ZORTZI (8) ASTEKO epea izango du, gehienez, lehenengo programa (1. programa) aurkezteko, kontratu hau esleitu zaiola jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita, betiere honako plegu honen 8 b) atalak xedatutakoari kalterik egin gabe.

Gainerako beste 10 (HAMAR) programak (2. programatik 11. garren programara) hilean bat entregatuko dira, aldizkakotasun horrekin eta batere etenik gabe kontratua esleitu den unetik aurrera urtebeteko epean.



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

5.- Prezioa

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak ordainduko dizkio enpresa esleipendunari honako zenbateko hau gehienez: 95.000 € (LAUROGEITA HAMAIIKA MILA EURO) gehi kantitate horri dagokion BEZa, programa guztiak ekoiztearen truke. Ordainketak hilerokoak izango dira, ordainketa zatikatu eta berdinen bidez, betiere programa bakoitza jaso eta BAT-BASQUE TEAMEk oniritzia eman eta gero.

Aurrekoa gorabehera, kontratuaren azken prezioa enpresa esleipendunak egindako eskaintza zehatzak finkatuko du, betiere honako plegu honen 8-a) atalean azaldu eta finkatutako baldintzen arabera.

6.- Kontratazioaren beste baldintza batzuk

Kontratuak irauten duen bitartean, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak beretzat gordetzen du honako eskubide hau: zerbitzua zuzen betetzen dela egiaztatzea eta zerbitzuori honako plegu honetan xedatutakora eta enpresa esleipendunak egindako eskaintzara egokitzen dela.

Fundazioak baimendu egin dezake honako kontratu honetan, pleguan edo onartutako eskaintzan zehaztutako lanak gauzatzeko baldintzetan gertatu litekeen edozein aldaketa. Ustekabeko edozein gertakari Fundazioari komunikatu beharko zaio, eta beharrezkoa izango balitz, Fundazioak onetsia izan behar du.

7.- Kontratua esleitzeko prozedura

Honako kontratu hau 2. mailakotzat jotzen da, eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleituko da, Fundazioaren Patronatuak Kontratazioarako Barne-Irizpideetan xedatutakoaren arabera. Kontratazioarako Barne-Irizpide horiek ikusgai daude Fundazioaren web-orrian, Kontratugilearen Profilean (www.basqueteam.com).

Fundación EUSKADI KIROLA Fundazioak ikus-entzunezkoen sektoreko hiru enpresatara bidaliko honako plegu hau. Hiru enpresa horiek ospe eta izen onekoak izango dira, eta esperientzia eta gaitasun egiaztatua izango dute kalitate handiko telebistaz emateko diren programak ekoizten.



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

Plegu honekin batera, gutun bat eta briefing bat bidaliko dira aipatu enpresetara, haien zerbitzuak emateko eskaintza bat egiteko gonbita luzatzeko, betiere 8. atalean finkatu diren baldintzen arabera.

Interesa duten enpresek plegu honetako 9. atalean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute epe jakin batean, plegu hau jasotzen den egunean hasi eta 2015eko ekainaren 12an amaitzen den epean hain zuzen. Dokumentazio hori Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren egoitzan aurkeztu beharko dute, Fadura-Getxon -Los Chopos etorbidea, zenbaki gabe (Fadurako Hobetze Teknikorako Zentroa), 94 656 41 70 telefonoa-.

8.- Kontratua esleitzeko irizpideak

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak, jasotako eskaintzak eta haiekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, plegu honen xede den kontratua esleituko du, kontuan izanda honako esleipen-irizpide hauek eta irizpide horien arabera:

- a) Zerbitzuak gauzatzearen prezioa (gehienez, 10 puntu). Honako plegu honetako 5. klausulan finkatutako lizitazio prezio maximoa murriztea balioetsiko da: puntu bat lizitazio-prezioa murrizten den 1.500 euroko; gehienez, 10 puntu.
- b) Egikaritze-epea (gehienez, 10 puntu). Programetako lehena entregatzeko epea laburtzea balioetsiko da: puntu bi plegu honetako 4. klausulan finkatutako epea aurreratzen den astebete bakoitzeko; gehienez, 10 puntu.
- c) Proposamenaren kalitatea eta originaltasuna (gehienez, 20 puntu). Balioetsiko dira originaltasuna, eskaintako kalitate teknikoa, eta telebistako programaren proposamenak duen komunikatzeko eta eragiteko ahalmena. Atal hau balioesteko, enpresa lizitatzailleek lehenengo programaren bozeto, script edo proiektu bat aurkeztu beharko dute, idatziz, eta bertan, zehatz-mehatz deskribatuko dira lehenengo erreportajearen gidoia eta edukiak. Horrez gain, produktuaren ezaugarri teknikoak ere deskribatu beharko dira eta zer-nolako baliabide teknikoak izango diren eskura ekoizpena gauzatzeko.



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

- d) Mezua eta BAT-BASQUE TEAM markari lotutako balioak (gehienez, 10 puntu). Balioetsiko dira, batetik, mezua, eta, bestetik, telebistako programaren bidez igorri eta zabaldu nahi diren marakari lotutako balioak. Atal hau balioesteko, enpresa lizitatzailerik beren lanaren helburuen gaineko txosten bat aurkeztu beharko dute Fundazioak balioetsi dezan.

- e) Telebistarako programak ekoizten daukan esperientzia (gehienez, 10 puntu). Balioetsiko da enpresak zer esperientzia duen erkidegoko eta estatuko telebista-kateetarako kalitate aitortuko telebista-programak ekoizten. Atal hau balioesteko, enpresa lizitatzailerik beren jardueren curriculum labur bat aurkeztu beharko dute, eta, bertan, egindako lanik aipagarrienetako batzuk zerrendatu.

Guztizko balorazioa: 60 puntu

9.- Enpresa eskatzaileek aurkeztu behar duten dokumentazioa. Enpresa lizitatzailerik honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- **“A” gutun-azalean**, behar bezala identifikatzeko gainazalean **“A GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA”** argi eta garbi idatzita izango duenean, aurkeztuko ditu dagokion behin betiko proposamen ekonomikoa, lehenengo programa grabatzeari dagokion epea betetzeko konpromisoa, grabatu beharreko lehen programaren proiektuaren deskribapen bat, produktu bukatuaren deskribapen tekniko eta berori gauzatzeko zer-nolako baliabideak dituen eskura, proiektuaren helburuen txosten bat eta enpresaren curriculumaren laburpen. Hori guztia egingo da arestiko 8. atalean adierazitako zehaztapen guztiak aintzat hartuta.

- **“B” beste gutun-azal batean**, gainazalean **“B GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”** idatzita izango duenean, sartuko den dokumentazioak (originala edo beraren kopia) egiaztatu beharko du honako hau:



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

- Enpresaren nortasun juridikoa, edo, bestela, beraren ordezkariarena (eraketa eskritura, IFKaren txartela, ahalak, etab.).
- Adierazpen bat, dagokigun kontratuaren erreferentzia berariaz aipatuta, ziurtatzen ez duela kontratatzeke batere debekurik SPKLTBko 73. 1º artikuluan aurreikusten diren moduetako ezeinetan.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak eta ordainketak eguneratuta dituelako ziurtagiria.

10.- Kontratazio-mahaia

Kontratazio-mahaia honako pertsona hauek osatuko dute:

- 1.- Fundazioaren Patronatuaren Idazkariak
- 2.- Fundazioaren koordinatzaileak
- 3.- Fundazioaren komunikazio-arduradunak
- 4- Kanpoko aholkulari batek, ikus-entzunezko komunikazioaren arloan aditua

Kontratazio-mahaia organo kolegiatua da eta hala jardungo du; eta, gainera, printzipio demokratikoen arabera gidatuko du bere jarduna. Patronatuaren Idazkariak kalitateko botoa izango du. Kontratazio-mahaiko idazkari gisa Fundazioaren lege-aholkularia arituko da, eta iritzia emateko ahalmena izango du baina bozkatzeko eskubiderik gabe.

Kontratazio-mahaia eskaintzak aurkezteko epea itxi eta 15 egunera bitartean bilduko da, eta egindako eskaintzak eta haiekin batera jasotako dokumentazioa aztertuta kontratua nori esleitu behar zaion erabakiko du. Kontratua esleituko zaio 8. atalean .finkatutako irizpideen arabera puntuaziorik altuena jasotzen duen eskaintzari.

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak kontratua esleitu zaiola jakinaraziko dio enpresa esleipendunari eta 10 laneguneko denbora-tartea emango dio kontratua sinatzeko.

Halaber, Fundazioak Kontratazio-Mahaiaren erabakiaren berri emango die eskaintzak aurkeztu dituzten gainerako enpresei, eta azalduko die zergatik baztertu den haien eskaintza.



Fundación Euskadi Kirola Fundazioa

11.- Jabetza intelektual

Kontratazio honen bidez, Fundación Euskadi Kirola Fundazioak bere gain hartzen ditu honako kontratu honen xede diren programen balizko ustiapen ekonomikoaren gaineko jabetza intelektualaren eskubide guztiak.

Delako eskubide horiek modu eskusiboan hartzen ditu beretzat edozein ustiapen motarekiko edota data honetan existitzen den edozein euskarrekiko. Beraz, beretzat hartzen du ekoizpenaren jatorrizko formatua eta edukia zabaltzeko, erakusteko, eta gizarteratzeko eta dibulgatzeko bere ustez beharrezkoak diren beste erreproduzio egiteko ahalmena; hala bada, enpresa esleipendunak Fundazioari lagatzen dizkio jabetzaren gaineko eskubide guztiak.

Eskubide hauek nazioarte osoan eta hizkuntza guztietan erabiltzeari buruzkoak dira, une honetan indarrean dagoen legediak ezartzen duen denbora tarte luzeenerako eta harik eta herri eskumeneko izatera pasatzen diren arte. Zehatzago esateko, eskuratutako eskubideak honako hauek dira: erreproduzitzeko eskubideak, banatzekoak, komunikazio publikokoak, kontratatutako obra aldatzekoak eta ekonomiaren aldetik ustiagarri izan daitezkeen beste guztiak .

Enpresa esleipendunak eta kontratu honen xede diren zerbitzuak gauzatzen eta egikaritzen parte hartu duen ezein norbanakok ezin izango du egindako lana beren onurarako erabili, ezta besterenganatu kontratatutako lanaren ezein zati, testu, irudi edo argazkirik. Gainera, ezin izango dute egindako lanaren zatirik ez hura osorik argitaratu, horretarako ez badute idatziz jasota Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren esanbidezko adostasunik. Hala bada, eta edozein kasutan, enpresa esleipenduna izango da betebeharrak horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalte-galeren erantzulea. Horrez gain, honako kontratu honen xede diren lanak direla-eta sortu diren material guzti-guztiak Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren jabetzakoak izango dira

Getxon (Bizkaia), 2015eko maiatzaren 15ean.